



hirukide

**LEHEN HEZKUNTZA BUKATU
ONDORENGO IKASKETAK**

**DBH
(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)**

ETA DBH BUKATU ONDOREN?

BATXILERGOA

**ERDI MAILAKO ZIKLOAK
(Lanbide Heziketa)**



g a i n b e r r i

Garmendiola aldapa 2
20400 TOLOSA
Tfnoa: 943 67 39 48

hirukidegainberri@hirukide.org

j e s u i t i n a k

San Frantzisko ibiltokia 12
20400 TOLOSA
Tfnoa: 943 65 10 27

hirukidejesuitinak@hirukide.org

e s k o l a p i o a k

San Blas auzoa 27 – Apdo. 117
20400 TOLOSA
Tfnoa: 943 67 03 11

hirukideeskolapioak@hirukide.org

www.hirukide.org

Lehen Hezkuntzako 6.eko ikasleen gurasoei:

Ikasturtea aurrera doa eta, honez gero, Lehen Hezkuntzako 6. mailan seme-alabarik duzuenok seguru behin baino gehiagotan hitz egin duzuela hurrengo urteari buruz. Eta bereziki aurten: izan ere, ikasketa-etapa bat bukatzen ari da eta honekin lotuta sortzen diren galderak eta zalantzak ugaritu egiten direlako.

Honi guztiari aurre egiteko, HIRUKIDEtik hainbat orientazio-ekintza egiten dira eta hemen daukazuen informazio liburuxka horietako baliabide bat besterik ez da.

Liburuxka hau honela dago antolatuta:

- I. DBHko etapa aurkezpen orokorra
- II. HIRUKIDEko eskaintzaren berezitasunak
- III. Erreferentzia pertsonak
- IV. DBH bukatu ondorengo ikasketak

Lasaitasun osoz hau dena irakurri eta gai honi buruz sor daitekeen edozein zalantza argitzeko, jo ezazue dagokion tutorearengana edota DBHko koordinatzailearengana.

Azkenik, HIRUKIDE proiektuari azaltzen diozuen atxikimendua eskertu nahi dizuegu.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta agur bero bat.

Izpta.: L.H.ko 6. mailako tutoreak

DBHko koordinatzailea

Hirukideko hiru zuzendariak

I. DBHko etapa aurkezpen orokorra

Lehen Hezkuntzako ikasketak bukatu ondoren, derrigorrezko hezkuntzari ekin behar diogu lau urteko DBH (derrigorrezko bigarren hezkuntza) etapa berri hau osatuz.

DBH gainditu ondoren lortzen den Tituluak mota desberdinetako ikasketak jarraitzeko aukera emango dizu, batez ere Batxilergoa eta Erdi Mailako Zikloak (Lanbide Heziketa).

Denok dakizuenez azkeneko urteotan aldaketa asko egon dira etapa honi dagokionez eta hainbat lege onartu eta indargabetu egin dira. Hauetariko azkena L.O.E. deritzona izan da. Beraz, hemen adierazten den diseinua da orain arte funtzionamenduan egon dena eta aipatutako legeak garatzen eta zehazten dituen dekretuak onartzen direnean, balizko aldaketak jakinaraziko dizkizuegu.

Etaparen egitura orokorra:

- **lau mailatan** dago antolatuta (bi ziklo)
- ikasleek bi motatako **irakasgaiak** ikasiko dituzte:
 - √ **irakasgai komunak:** DBHko ikasle guztiek ikasiko dituztenak. Hauek dira:

- Euskara	- Tutoretza
- Gaztelania	- Etika (4.)
- Ingelesa	- Natur Zientziak (1.-2.-3.)
- Matematika	- Teknologia (1.-2.-3.)
- Gizarte	- Plastika (1.-3.)
- Heziketa Fisikoa	- Musika (2.-3.)
- Erlijioa	
 - √ **aukerako irakasgaiak:** aurreneko hiru mailatan bi orduko aukerako irakasgai bat ikasi behar da eta 4. mailan, bi orduko bi irakasgai eta hiru orduko beste bi irakasgai aukeratu behar dira.
- lehen hezkuntzan bezala irakasgaiak ebaluatzerakoan hiru motatako edukiak kontuan hartzen dira: kontzeptualak, prozedimentalak eta jarrerakoak.
- maila bakoitzean hiru **ebaluaketaz** gain, ohiko eta ezohiko azterketa finalak egongo dira.

- DBHko ordutegia:
 - √ goizez egunero 8:00-13:15 (DBHko 1. eta 2.ekoak asteleheneran izan ezik, ikasle hauek egun horretan 9:00etan sartzen dira)
 - √ arratsaldez astelehen, astearte eta ostegunetan 15:15-17:15 ordutegiaz

Beraz, asteen 31 klase ordu dira (DBHko 1. eta 2. ean 30 ordu)
- etapa osoan kurtsoz pasatzeko ekaineko ezohiko emaitzetan gehienez ez-gaunditutako bi irakasgai izan daitezke. Gehienez bi kurtso errepikatu daitezke etapa osoan eta inoiz ez maila bera bi aldiz.
- DBHko 4. maila gaunditzeko, eta ondorioz, Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko, irakasgai guztiak gaundituta egon behar dira.

II. HIRUKIDERen eskaintzaren berezitasunak

1. Aukerako irakasgaiak

Aukerakoak 1. zikloan (DBH 1.-2.)

Ondoko bien artean **bat** aukeratu behar du:

- ◆ A aukera: **Frantsesa (I eta II)**
- ◆ B aukera: **Hirukoiztuta** (ebaluaketa bakoitzean gai bat):
 - gaitasun teknikoa: **informatika** (1.) eta **tailerra** (2.)
 - ikus-entzunezko **komunikabideak**
 - **ikasten** eta pentsatzen **ikasi**

oharra: ziklo osoan aukera bera mantendu behar da

3. mailako aukerakoak

Ondoko hauen artean **bat** aukeratu behar du:

- ◆ Frantsesa III
- ◆ Komunikabideak
- ◆ Ingurugiroa
- ◆ Lanbide Hastapena
- ◆ Kultura Klasikoa

4. mailako aukerakoak

Irakasgai-multzo bakoitzeko irakasgai bakar **bat** aukeratu behar du:

<p>A multzoa: (astean 2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Frantsesa IV ◆ Informatika ◆ Komunikabideak ◆ Lanbide Hastapena 	<p>B multzoa: (astean 2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Informatika ◆ Laborategia ◆ Historia eta Geografia tailerra
<p>C multzoa: (astean 3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Fisika eta Kimika ◆ Teknologia ◆ Musika 	<p>D multzoa: (astean 3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ◆ Kultura Klasikoa ◆ Marrazketa Teknikoa ◆ Biologia

2. Erabiltzen den metodologia

- metodologia **eraginkorra**, hau da, kurtsoan zehar mota askotako ekintzak egiten dira (kanpainak, irteerak, bisitak,...). Hauen bidez ezarritako edukiak lantzen dira eta hezkuntza helburuak lortzen dira.
- **baliabide teknologikoen** erabilera bultzatzen dugu: informatika gelak, ikastetxeko irratia, arloetara aplikatutako programak (webquest), lkaslagun plataforma,...
- **aniztasun trataerari** erantzun egokia emateko prest:
 - ✓ irakasgai instrumentaletan **talde malguak** egiteko apustua:
 - Gaztelania, Euskara, Ingelesa eta Matematika
 - talde txikiagoak eta homogeneoagoak
 - ez dira talde finkoak eta irakasgai guztietan ez dira izaten berdinak
 - ez dira egiten maila guztietan
 - ✓ **Hezkuntza Bereziko** bi irakasle
 - ✓ Norbanako **kurrikulum-egokitzapenak**
 - ✓ aukerazko irakasgaien **eskaintza zabala** (lehenago aurkeztua)
 - ✓ **DBH bukatzean, Hirukiden jarraitzeko aukera**, ikasleen behar eta egoerei egokituak dauden ibilbide ezberdinak eskaintzen dira

3. Ikasle bakoitzari bere bidea egiten laguntzen

- familia eta ikastetxearen arteko harremanak inoiz baino garrantzitsuagoak dira
- maila guztietako tutoretza plana
- gelako gurasoen bilerak
- elkarrizketa pertsonalak (gurasoak, tutorea eta dagokion kasuetan ikaslea edota irakaslea ere bai)
- eguneroko informazioa ezagutzeko aukera mobilaren edo interneten bidez (MentorVox komunikazio tresna)
- Hirukidetik eskaintzen zaizkizuen orientazio testak (DBH1, DBH3, DBH4 eta Batxilergoko 1. mailetan)
- ebaluaketa sesioak
- irakasleen arteko koordinazioa (mintegiak, maila berean ematen dutenak,...)
- aniztasun trataera bultzatzen (lehenago azalduta)

4. Beste pertsonen errealitateak hurbiltzen

- **elkartrukeak**: Ingalaterrarekin DBH 2. eta 4. mailetan eta Poloniakoekin Batxilergoko 1. mailan
- **Eguberri kanpaina** eta **Elkartasun kanpaina**
- ikastetxera **hitzaldiak** ematera etortzen direnean eta kanpora **bisitak** egitera joaten garenean

5. Eleaniztasuna bultzatzen

- **euskara** ikasteko eta erabiltzeko makina bat proiektu eta ekimenetan parte hartzen dugu (Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Bai Euskarari, euskara eguna,...) eta titulu ofiziala ateratzeko aukera.
- **ingelesaren** ezagupena eta erabilpena zabaltzeko:
 - ✓ elkartrukeak
 - ✓ Cambridgeko azterketetara aurkezteko aukera
 - ✓ gelaz kanpoko klaseak
 - ✓ DBH bukatzean, Batxilergo Eleanitza ikasteko aukera
- DBHko etapa osoan **frantsesa** ikasteko aukera
- eta hau dena **gaztelania** ere menperatu behar dela ahaztu gabe!.

6. Heziketa integrala eta kristau-humanismoan oinarrituak

- heziketa balioetan: kanpainak, tutoretzak, erlijio klaseak,...
- maila guztietan elkarbizitzak
- erlijio klaseak
- fede esperientziak
- mundu hoberen aldeko konpromisoak
- gela barruan eta eskolarekin bukatzen ez den heziketa proposamena: Kirikiño aisialdi taldea, Sendotzen fede taldeak eta Kirol taldeak.

7. Eta hau dena, eskaintzen dugun eredua guregan gauzatuz

Askotan entzun dugu honako esaldi hau: “Askoz gehiago hezitzen dugu egiten dugunarekin eta garen moduarekin esaten dugunarekin baino”.

Azkenean zuen seme-alabek, gure ikasleok, bai zuengan bai guregan ikusten dutena beraiantzat garrantzitsuena izango da:

- HIRUKIDEk proposatzen dituen ekintzetan denok parte hartzen badugu,
- familia eta ikastetxearen arteko komunikazio arina badago eta bietan gauza bera esaten bada,
- hezitzaileok proposatzen ditugun balioak gure bizitzan ere gauzatzen saiatzen bagara,
- proiektu orokorrari bakoitzak ahal den neurrian berariazko ekarpena gehitzen badiogu,

hau dena betez gero, orduan bai esan dezakegula bide onetik goazela!.

III. Erreferentzia pertsonak

- gelako tutorea eta norberaren tutorea
- arloetako irakasle guztiak eta hezkuntza berezikoak
- idazkaritzakoak
- koordinatzaileak
- psikologoa
- zuzendaria
- entrenatzaileak eta aisialdiko begiraleak
- ...

IV. DBH bukatu ondorengo ikasketak

Aurrerago honetaz informazio gehiago izango duzuen arren¹, zuen seme-alabek DBH etapa bukatzean zer motatako irtenbideak izango dituzten ezagutzea komenigarria da. Hauek izango dira:

* **Batxilergoa:**

1. Goi Mailako Zikloetara bakarrik bideratua dagoen ibilbidea (Batxilergo Teknologikoa)
2. Goi Mailako Zikloetara edo Unibertsitatera bideratuak dauden ibilbideak:
 - a) Zientzietatik **Marrazketa** ikasi nahi duena
 - b) Zientzietatik **Biologia** ikasi nahi duena
 - c) Letretatik **Gizarte-Zientziak** ikasi nahi dituenak
 - d) Letretatik **Humanitateak** ikasi nahi dituenak

Eta honetaz gain, Batxilergoko **lau ibilbide horietan Batxilergo Eleanitza** ikasteko aukera eskaintzen da

* **Erdi Mailako Heziketa-Zikloak:**

1. Merkataritza (urte bat eta praktikak)
2. Administrazio kudeaketa (urte bat eta praktikak)
3. Aurreko biak jarraian ikastea (bi urte eta praktikak)

¹ Interesatuak bazaudete eskatu idazkaritzan "DBH bukatu ondorengo heziketa-ibilbideak" liburuxka